

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak espero du Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak irakasleentzako 132 lanposturen LEP partzialaren aurka Estatuak jarritako helegitea atzera botatzea

Caballero presidenteordeak Gobernu Zentralari egotzi dio "ehunka oposiziogileren etorkizunarekin jolasean aritu izana" eta Nafarroako eskumenak baliatzea eragotzi izana

Martes, 10 de mayo de 2011

Javier Caballero lehen presidenteordea eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak espero du Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak Foru Gobernuak deitutako irakasleentzako 132 lanposturen LEP partzialaren aurka Estatuak Abokatutzak jarritako helegitea atzera botatzea; Gobernu Zentralaren ustez, deialdiak ez du errespetatzen Estatuak Aurrekontu Orokorren Legean ezarritako berritze tasaren (erretiroak) % 30eko muga.

Caballero presidenteordeak deialdia legezkoa dela defendatu du eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioak sustaturiko errekurtsioak ekarriko dituen ondorioak ohartarazi ditu. Azpimarratu du, errekurtsioaren bidez, Nafarroako foruaren funtsezko parte diren eskumenak eragozten dituela eta estatuak eskumen horiekin ardura handia izan beharko lukeela.

[Justiziako langileen inguruan CCOO eta UGT sindikatuekin hitzarmena](#) sinatu ondoren, hedabideen galderari Presidenteordeak erantzun die esanez irakasleentzako lanpostuen deialdiak "ez lukeela inolako gatazkarik sortu beharko", Nafarroak egiteko ekonomikoak eta estatuko gainerakoekiko "elkartasun betebeharra" bete dituelako; hori oinarri hartuta, 132 lanpostu horien deialdia egin du "dituen eskumenak erabiliz".

Caballero presidenteordeak Gobernu Zentralari eskatu dio "Nafarroaren eskumenekin eta bere foruekin sentsibilitate handiagoa izateko". Gainera, "deialdi horretarako prestatzen ari diren ehunka oposiziogileren etorkizunarekin jolasean aritzea" leporatu dio; oposizioetarako azterketak ekainean egingo direla aurreikusitako da.

Halaber, esan du Nafarroako Gobernuak "ez duela ulertzen" zergatik jarri duen deialdi horren eta beste autonomia erkidegoetako aurkako errekurtsioa, "mila lanpostu baino gehiagoren deialdia egin duten" beste erkidegoen aurka jardun ez baldin bada. Ohartarazi du neurri horren ostean balitekeela "guztientzako prozedura bera" ezartzeko asmoa izatea.